

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urriaren 16a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Gorriti** • Liburutegia zabalduko du herriko konteak.  
**Joseba Igarabide** • «Oraindik aunitz antzinatu behar dugu»

## Gizartean eta merkatuan txertatzeko ateen bila



# Etxalar ● Ehiztariak Etxalarrera

Usategietako igandea ospatuko da igandean Etxalarren

**Ehizagune edo usategirik ezagunenetakoa da Etxalarkoa, bertzeak bertze eskopetaz ezezik, sare bidez ere ehizatzen baitira usoak Etxalarren. Usategietako igandea ospatuko da etzi, ohi bezala urriko hirugarren igandean.**



Usategien eguna eginen da etzi. ● JAGOBA MANTEROLA

**I**EHIZTARIEN ARTEAN EZEZIK, Etxalarko herritarren eta inguruko jendearen artean aski ezagunak dira usategietako igandeko besta-ospakizunak. Jende anitz hurbildu ohi da igandeko egunez Etxalarko usategietara, Etxalartik ezezik Bortzirietako gainerako herrietatik ere, baita Saratik ere. Topagunea izaten da gehien bat, besta ekitaldi anitzik ez baita izaten antolatutik.

Bezperan, azken bi urteotan desagertutako gaupasaren lekukoa hartuko du Laiotz taldearen dantzaldiak. Altxata Elkarteak eta herriko gazteek antolatuta dutena. Dantzaldia gauerdian hasiko da Etxalarko plazan, eta goizeko laurak arte iraunen du. Egunik handiena, baina, igandekoa izaten da.

Goiz-goizetik gainerako herrietatik jendea mendiz iritsi ohi da. Ehiztariak -eguraldia lagun baldin badute behinik behin, eta

usoak baldin badaude- euren erakustaldia eskaintzen dute egun horretan bertaratzen direnentzat. Usoak sarrarazteko palak bota ohi dituzte, usoak jaitsi daitezten. Horrek usoak sarean sartzea ahalbidetzen du, eta behin uso mordoaren sarean erori dela, hau jaitsi eta usoak harrapatutik gelditzen dira, bizirik. Ondoren, eta usoak artean bizirik direla, ehiztariak sarera hurbildu eta lepoa bihurrituz hiltzen dituzte hegaztiak, banan bana. Herri guttitan ikusten da usoak ehizatze modua hau, eta igandekoa aukera aparta izaten da, beti ere eguraldiak laguntzen badu, eta batez ere hego haizea ateratzen baldin bada.

Amildegiaren bertaldean Sarako ehiztariak egoten dira, eta sarritan alde batekoen zein

bertzekoen arteko haserrea piztu izan da, usoak euren sareetara hurbiltzeko ahaleginean. Ehiztarien artean, nonbait, ez ei da herritarren arteko giro bera izaten.

### Besta, herrian

Egun horretan usoa jateko aprobetxatu ohi du jendeak, usategietan zein Etxalarren. Arratsaldean besta gunea Etxalarko herria izaten da. 17:30etan hasita Auskalo antzerki taldeko hankaluzak karrikan ibiliko dira umeentzat euren ikuskizuna eskaintzen, eta iluntzean Furunda eta bere taldea aditzeko beta izanen da, 21:30etatik aitzinera. Arratsalde partean ere herriko trikitilariak karrikaz karrika ibiliko dira.

Etxalarren ehiza postuek zerbaterainoko garrantzia duten

jakiteko, nahikoa izaten da ikustea ehiza-postuen enkantean pizten duen ikusmira. Diru iturri garrantzitsua izaten da Udalarrentzat ehiza postuena. Aurten, gainera, sei ehiza postuen enkanteari sesta eman diote, eta horregatik, berriz ere enkantean paratuko dira. Guztira ia zortzi milioi pezeta jasotzen ditu urtean Etxalarko Udalak ehiza-postuetatik. Batare lanik egin gabe Etxalarren ehizatutako usoak etxeratzeko aprobetxatzen du hainbatek. Aurten, ostatuan eta zozketaren bidez bilduko den dirua erdibana banatuko dute antolatzaileek Ttipi-Ttapa fundazioarentzat (aldizkari eta telebista laguntzeko) eta Eginen ordezkari atarako den egunkari berriarentzat.

→ Jon Abril

## Lizarra ● Herriko berdeguneak aztergai

JOAN DEN HILAREN 23AN LIZARRAKO Udaletxeko Ingurugiro Ahulkugintzak «Giroaz» ikerketa kaleratu zuen. Bertan, hiri osoko berdeguneen %63a baldintza desegokietan aurkitzen dela aipatu zen. Ikerkuntza honen arabera Lizarrako belardien %37ak bakarrik gainditzen ditu gutxiengo eskaria batzuk. Portzentaioetan irizpide izan dira lorategien diseinua eta kontserbazioa. Halaber, azterketan ageri denez, Lizarran berdegune izendatu daitezkeen 70 plazetatik, pasealekueetatik eta lilitegetatik, 28k baino ez dute ureztaketa ihintzaldiz egiteko sistema. Arestian aipatu datuak kontutan hartuta, hauxe da agertu berri den lanaren ondorio nagusia: «hiri osoko berdeguneen egoera ez da batera ona, salbuespen batzuk kenduta». Lizarrako Udalak Los Llanosko lautada batean zuhaitz landaketa bat egiteko asmoa du. Jakin denez, 83 zuhaitz berri landatuko dira Eskolapioseko Lautada izenaz ezagutzen den tokian. Halaber, belardi berria ipiniko da, baso ttipiak eratuko dira eta handik ibili ahal izateko bidexkak eginen dira. Proiektua berdegune honek jasotzen duen harrera dela eta eramango da aurrera, hara hurbiltzen den jende kopurua.

Lizarrako Udalak 15 milioi gastatuko ditu proiektua gauzatu ahal izateko (600.000 libera). 17.500 metro kuadroko berdegunean belar berria landatuko da eta bertan hiru baso eta hiru iturri eraikiko dira.

→ Kristina Berasain

muga enea

MIKEL REPARAZ



## ...Eta gu ezin bozkaturik

**H**aurrak pozik gaude. Ez Sudanen, ez eta Pristinako kantonetan ere. Baina hemen neska-mutiko guziok pozarren gabilta. Ikasturtea bete-betean hasia baita, eta goizero gurasoek Audi beltzak eskola ate aurrean aparkatu eta mutxila eta guzti ikastetxe hesian barrena askatzen gaituztelakoz. Eta eskolako patiora iritsi eta hortxe aurkitzen ditugu lagun guztiak, goizero. Hara hor non dabilen Pablito, Alemaniak Txekia bezalakoa, forala eta espainola izan behar duela garrasika -Geografian eskas hizki gorritz paratzen beti andereñok, gizajoa-. Askori entzun diet Pablito ez dagoela burutik sano, baina ez dago betere ongi burutik sano ez dabilzanen lepotik barrez ibiltzea. Eta

bestela begira beste bi horiei, txapetara olatzen. Charlie eta Niko dira, eta horiek ere pozik dabilta, bakoitza bere modura, baina pozik finen. Gu bezala, guztiok bezala. Eta han, hesiaren beste aldean futbolearen dabilen koadrila hori bezala. Haiekin kontuz ibiltzeko esan digute behin baino gehiagotan gurasoek, ganberro hutsak direla, eta haiekin ez nahasteko. Baina baloia haien eskutan dago eta nik nahiago dut futbolearen aritu, txapetan edo Pablitorekin alde batetik bestera asper-asper eginda ibili baino.

Alta, etxean ere ez gara aspertzen. Aitak koroa paratzen digu kaska gainean, eta ezpataka ibiltzen gara, errege galdu baten bila, zaldi gainean irrintzika...

Borbonak aski ez balira bezala. Eta aitak errikulu latza egiten du gero karrikan, ziudadean. Eta bien bitartean, ez futbol, ez txaparik, ez deus ere. Eskolara joateari ere utzi beharko diegu halako batean, eta bajera bat alokatu, ganberro koadrillarekin ez nahastearren. Eta andereño berri bat izanen dugu, eta agian Pablito ere gurekin etorriko da, geografia klaseak ematera. Haurrok kontent gaude, bai, baina are zorientsuago gineteke baldin eta eskolako patioan askatasun osoz ibiltzerik bagenu, eta hilaren 25ean, auzoko ganberro guztiak, eta Charlie eta Niko eta baita Pablitorekin, papertxo bat eskuan harturik, eskolara joan bagintezke. Eskolara, igandea izanik ere.



ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## 2046. urteko kontuak

Gotorlekuan gertatu zitzaidan. Guztiz harrigarria izan arren inongo lotsarik gabe kontatuko dizuet. Segurasko Ekonabarran izandako jende alternatiboen energiekin lotura izango du, ez dakit, akaso bildutakoan

*Ying-yang-raiky-yogui* moe-tatak uhin gehiegi elkartu zire-lako edo eraginarengatik. Kontua da Gotorlekura hurbildu nintzela eta ate nagusitik sartu bezain laister hantxe topatu nuela gizon zahar eta niretzat guztiz ezezaguna zen hura, eguzkiak jotzen zuen banku batean eserita, ducados bat erretzen ari zela, eta niri begira zegoena. Bai, niri begira zegoen eta irripar alu bat zuen aurpegian. Berarengana hurbiltzeko keinua egin zidan eta halaxe egin nuenean horrela mintzatu zen: «Zu bezela, 32 urte nituenen, hemen bertan, gizon zahar bat aurkitu nuen eta hitz hauek, berberak, bota zizkidan». Ez dakit zergatik bainan bapatean den dena ulertu nuen. Klaro. Denbora Kosmikoan egindako zulo baten aurrean nengoan. «Zu ni naiz ezta hala?»-bota nion bapatean. Berak baietz esan zidan buruarakin eta gero ahots kraskatuaz: «ni zu izango zarena naiz». Jesus Maria eta Joxe, ez nuen itxura onik. «Zein urtetan zaude?»- segitu nuen nik. «2065ean». «Beraz, 80 urte dituzu». «Bai... entzun motel, ez dugu ia denborarik. Nik gauza bat galdetu nion gizon zaharri, etorkizunaz noski, nereko tankera ez hartzeagatik pakeari buruz galdetu nion...». Nik ea biriketako minbizioa ote zuen/nuen galdetu nahi nion bainan, nerekoa ez izateagatik, hauxe galdetu nion: «Esaidazu nola atera den guzti hau, ETAREN suetena, Lizarrako bidea eta abar». Gizonak barre egin zuen, modu nazkagarri batean, eta gero eztula etorri zitzaion eta eztulen artean «horixe bera galdetu nion nik», entzun ahal izan nuen. Tipo nardargarria!. Orduan Denboran zabalduko zuloa ixten hasi zen. Aurretik sorbalduko muinoa, hondotik banku gainean zegoen gorputza, belauak gero eta bukatzeko zapaten puntak ere, desargertuz, 2065. urtera bueltatu ziren. Minduta gelditu nintzen. 80 urtekin *tontolaba* bat izaten jarraituko dudala jakiteak ez ninduen batere poztu.

# Bera • Liburutegia zabalduko du herriko konteak

Iriondo-Goikoaren etxeko behe solairuak 10.000 liburu bilduko ditu

**Garai batean  
Zabalako Kontearen  
ehize-etxea zena  
berritu dute.  
Donostia eta Tolosan  
dituen liburutegiei,  
Gorritikoa gehituko  
zaio fundazioaren  
garrantzia  
handiagotuz.**

**L**UIS MARIA DE ZABALA FERNAN-dez de Heredia da Gorritiko kontearen izena. Aspaldiko urteetan Donostian bizi bada ere, bere burua gorritiartzat du, gogoan baititu txikitari Gorritin igarotako momentu ederrak. Gaztetan ere, behin baino gehiagotan joaten ziren Gorritiko Iriondo-Goikoa etxera ehizean airtzeko aitzakiarekin. Historiako akademiako den honek ehizerako etxe hori konpontzeko ametsa betidanik izan omen du. Orain, berriz, amest hori egi bihurtu du, eta



Gorriti herriaren historia bildu duen liburuaren azala.

ia urtebeteko lanen ostean, igandean inauguratu zuen.

Gorritiko kontearen izena darman fundazio bat bada. Tolosan eta Donostian zituen honek bere egoitza nagusienak orain arte, baina hemendik aurrera, Gorriti-

koa ere gehituko zaio zerrenda horri. Izan ere, konteak dituen liburuteko batzuk, 10.000 hain zuzen, Iriondo-Goikoaren behe solairuan paratuko ditu aurki. Gipuzkuan daukan eta bere biziko garrantzia ei duen fitxategi bibliografikoa, momentuz, han geratuko da. Halare, izugarritzko altxorra da Gorritira ekarriko duena.

### Historiaren zertzeladak

Zabala jaunak historia oso gogokoa duenez, inaugurazio ekitaldirako, historiari buruzko hitzaldi bat antolatu zuen, baina ez historia orokorrari buruz, Gorritikoari buruzkoa baizik. Hitzaldia, Jose Luis Orella historialariak eskaini zuen. Larraungoa beti mugan izan den herria dela esan zuen, behin eta berriz Orellak. Urteetan uste izan denaren aurka, Euskal Herriko mugak ez datoz geografi-

koekin bat. Horrela, Pirinioak ez zituzten bi jurisdikzio eta bi estatu bereizten. Transhumantzia guinea zenez, bi herrietako kideen arteko harremanak estutzeko modukoa zen. Oihenart handiak esandakoari kasu eginez, Lapurdiko konterria ia-ia Gorritiraino heltzen zen, Pirinioen gaindik. Behe Erdi Aroan ere ez zuten, nonbait, oso argi Gorriti non kokatu beharra zegoen. Garaiko zenbaiten ustez, Gipuzkuako lurren barruan zegoen herria. Garai hartan baziren Larraunen, esaterako, «cum comitate Ypuzcoa» edo «Hermendat de Ypuzcoa» izeneko juntak. Herriko lur sailak bokagetan banatuak zeuden, hau da, baikoitzaren eta bestearen barrutiar artean, setoek eta zuhaitzek egiten zuten mugaren lana. Izan ere, garai hartako kezkarik handiena mugena zen. Muga horiek ongi bereizteko izendatu ziren hainbat herri «villa» modura: Biasteri, Donostia, Durango, Nabaskoze... Eta Euskal Herri osoan banatutako zenbait gazteluk ere muga markatzen zuten. Orellaren esanetan, Gorritin ere bazen hauekoko bat. Santa Barbarako gailurrean, hain zuzen. Hezumendiren alboan. Hezumendi lur sailean Navas de Tolosako gudan hildakoak lurperatu zituzten. Orellarren ustez, bertan lur mugimenduak eginez gero, eta izugarritzko hezur pila aurkituko lituzkeenez, balio arkeologikoa garrantzitsukoak.

Azken finean, lur eremu batean kokatu edo bestean, bost axola, Oihenart handiak esandakoaren arabera, «euskaldun, nafar, akitano... Berdin du, desberdintasun gutxi baitago denen artean. Denak dira berdintsuak».

→ Urko Aristi

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Euskal Erakustokia, 2001ean zabalik

Baionako Euskal Erakustokia hartu du Herria astekariak bere azken zenbakian *Herria eta Kultura* gehigarriko ardatz: «Bedertzi urte egiten du hetsia dela Baionako Euskal Erakustokia Marengo karrikan dagoen Dagouretten etxean gaur egun obrak egiten ari dituzte eta kargudun guzietatik errana dute erakustokiko erreserbak Jauregi berrian kokatuko direla betikotz».

«Euskal ondarearen altxorrik nagusienetakoa dugu Euskal Erakustokia Baionan», dio Herriak azken zenbakian; hori dela eta, Olivier Ribeton zuzendariarekin mintzatu dira. «Luze doatzi gauzak baina Dagouretteneko arregurak ere kozkorak ziren. Errobi ibaia aitzinean pasatzen zaio. Berez hezea den bastiza horretan, Boissel lehen zuzendariaren denboran barne antolaketan andana egina izan da 1922 eta 1930a artean. Ondorioz barnetegi mugitu da, etzen posible 1.000 bisitari betan sarraraztea etxe horretan», dio Ribetonek Herriko gehigarrian.

2001. urtean zabalduko dute berritua Euskal Erakustokia, Herriak aipatzen duenez. «Beherean Dagourettena eta haren gibeletako segun bastizak aterbetuko dute Erakustokia. Hor izanen dira orotara 4.000 metra karratu, horietatik 2.600

## ESKELAK



Javier  
Aizarna  
Azula

### — GOIAN BEGO —

**Donostian bil zen, joan de urriaren 3an, Eleizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena bartu ondoren.**

Emaztea: Itziar Rementería Ibarra, Seme-alabak: Jone, Koruko, Itziar eta Jon Paul, suin-errainak: Miguel Angel Garaikoetxea Urriza, Javier Elzo Imaz eta Koro Lopetegui Algorta, anai-arrebak: Joaquín, eta Sor M<sup>a</sup> Pilar (lekaime), bilobak: Jon Elzo, Leire Garaikoetxea, Marta Elzo, Ane Garaikoetxea eta Uxue Aizarna, ezkon anai-arrebak: Nati Charola (Juan Miguel Rementeríaren alarguna) eta Maria Luisa Iturrioz (Zipri Rementeríaren alarguna), ilobak, lehengusu-lehengusina eta osterantzeko senitartekoek,

Bere arimaren alde, bihar larunbata, urriaren 17an arratsaldeko zazpirak laurden gutxiagotan, Iruñeako Jesuiten Elizan ospatuko den mezatara, etorri zaitezte dei egiten dizuegu.

Iruñean, 1998ko urriak 16

# Gizartean txertatzeko ateak

Bazterketa arazoak dituzten jendea berriro gizarteratzen duen programa jarri du abian Iruñeko Udalak

Gizartean bazterketa arazoak eta lan merkatuan txertatzeko atakak besterik ez dituen jendea berriro ere bergizarteratzeko eta lanean jartzeko Gizarte eta Lan Munduan Sartzeko Programa abiatu du Iruñeko Udalak. Arazoak dituen norbanakoaren bakarkako jarraipenean oinarritua, lehenengo uzta ematen ari da.

JOAN DEN ASTEAN AURKEZTU ZEN Iruñean bazterketa ikerketak dioenez Nafarroako hiriburuan gizarte bazterketa Nafarroakoa baino zertxobait handiagoa da eta herrialdean baztertuak dauden hiru familietatik bat lekutzen du. Nafarroako Gobernuak eta Unibertsitate Publikoak Iruñeko Udalarekin batera egindako azterketak, dena den, aurretik antzematen zen errealitate bat frogatu besterik ez duela egin dio Ines Saenz de Pipaon, Iruñeko Udaleko Zerbitzu Sozialetako arduradunak. Gizarte bazterketa horren jakitun, Europako Batzordeak txirotasunaren aurka eskaintzen dituen laguntzen barruan, Kreinet programa aprobetxatuz, Udalak Prestakuntza Sozio-Laboraleko Zentro Aintzindaria jarri zuen martxan iragan urtean Gobernuarekin batera. Jarraipenez bestalde, NUP arduratzen duen programa gizarte bazterketa arazoak dituzten jendearekin lan egin eta berriro merkataturazua zuten helburu. Aintzindaria izan zenak jarraipena izan du martxotik lanean dagoen Gizarte eta Lan Mundura Sartzeko Programarekin. Egitasmoan gizarte zerbitzuak lantzeko beste modu bat salatu zen eta horiek txertatzeko bideak aurkitzean oinarritzen ziren. Horrela, zerbitzura hurbildu zen norbanakoaren egoera aztertzen zen, haren baliabide pertsonalak zein eskasiak aztertu eta interesantuekin txertatzeko bide bat jorratzen zen, hau da, arazoak moldatuko zituen egitaraua egokitzen zitzaien. Bederatzi laguneko taldea osatu zuten horretarako eta urtean zehar 60 lagunekin egin zuten lan. Aintzindaria izan zen egitarauari beste berri bat lerrotu zaito gizarte zerbitzuen arloan egonkortasun bat emateko asmoz. Gizarte eta Lan Mundura Sartzeko Programa berria martxoan hasi zen lanean. Talde berak jarraitzen du lanean baina gizarte eta mundura sartu beharkeko kopurua igo egin da eta aurten 78 dira.




Isabel Elizalde

«Helburua bergizarteratzea eta enplegu bat lortzea da, baina ez da hori aunitzetan lortzen duguna badirelako beste hainbat gauza lehenago landu behar direnak. Pertsonalki zein formakuntzan bere burua nola dagoen ikusi behar du. Aunitzetan jendea galduta etortzen da honat»

Isabel Elizalde garapen agenteak eta Itziar Lizaur hezitzaile espezializatuak diotenez. «Langabetuekin egiten dugun lan, baina, beti ere, baldintza larrietan dauden langabetuekin. Behin, jende horren egoera bederatziriotan (etxebizitza, familia, osasuna, hezkuntza, diru sarrera, formakuntza eta enplegua) aztertu eta gero programaren hiru lerroak aplikatzen ditugu: formakuntza, jarraipen laguntza eta enplegua lortu». Azken xedea lan bat lortzea bada ere, aurretik egin beharreko lana erabakiorra da askotan gero emaitza onak lortzeko. «Helburua bergizarteratzea eta enplegu bat lortzea da, baina ez da hori aunitzetan lortzen duguna badirelako beste hainbat gauza lehenago landu behar direnak. Pertsonalki zein formakuntzan bere burua nola dagoen ikusi behar du. Aunitzetan jendea galduta etortzen da honat», gaineratu du Elizalde. Gauzak horrela, batzutan lana instanteko bilatzen bazaien ere, bestetan pasatzen da urte bat baino gehiago lan bat lortzeko. «Jenak dioen bezala lan mundura txertatzeko programa da eta pertsona batzuk behar izanen dute gizartean txertatu eta beste batzuk zuzenean lan merkatuan sartuko dira. Pertsona bakoitzak bere bidea egiten du», azpimarratu du garapenerako agenteak.

Programan parte hartzen duten profilik egin ez duten arren, hiru taldeetan banatzen da: gazteak, 45 urtez goitik gizonak eta, usuenak dira, arazo larriak dituzten emakumeak. «Pentsa bederatziriotan arlo horiek landu behar badira. Batzuk lan arazoak dituen moduan beste batzuk famili arteko arazoak



Gizonek autoak birziklatzeko ikastaroa hasi berri denez, Isabel Elizalde eta Joseba Lakidain, Iruñeko Udalaren panaren ari dira. ● OSKAR MONTERO

dituztela. Pertsonarekin ari gara eta profil bat egin duten arren, askotan hasierako ereduetik ateratzen dira. Gainera emakume gehienak umeekin eta bakarrik daudenak dira. Honera etortzen dira oinarrituko errenta jasotzen dutenak edo jasotzeko aukera dutenak (44.000 pezeta hilero), azpimarratu du Isabeldek.

Iruñea osatzen duen hamar auzoen arabera zatitzen dute lana eta programara hurbiltzen denari laguntza pertsonala ematen zaio. «Behin fase hori gaindituta, berak onartzen badu proposatutakoa gure programan sartzen da. Erran nahi du pertsona bat egon behar dela berari laguntzeko bera delako inportantea eta bera delako gauzak egin behar dituen baina beti badu norbait ondoan laguntzeko», gehitu du programan lanean ari den Elizalde.

Behin arazo pertsonal larriak gaindituta prestakuntza hasiko da. Aurten merkatuko beharrak aztertu eta gero, harraindegietan, automobilgintza

tzarako piezak berreskuratzeak eta familietan lan egiteko langileak prestatzen dihardute aipatu programan.

Programa martxoan hasi zen eta abenduan bukatuko dute. «Helburuak lortzen direla esan daiteke baina guk lagundu arren, beren lana da enplegua aurkitzea. Guk egiten duguna bitartekaritza lana», nabaritu dute arduradunak. «Ez da bakarrik pertsona baizik eta bere ingurua. Hor bada aunitz lantzeko. Baimenak, ingurunea. Aunitzetan pasatzen da nolabait ikustea besteek moldatuko dizkidentela arazo guztiak eta ez da horrela. Hemendik salatzeko gara laguntza ematen eta nola egin baina berak egin behar ditu gauzak eta berak hartu behar ditu erabakiak», gehitu dute.

## Aukera baten bila

Prozesu guzti hori iragan ondoren, egun lanean hasi aurreko prestakuntza aurkitzen diren talde ezberdinak. Horietako bat da II Zabalaguneko merkatuan astean lau aldiz arraindegiko martxa nola



Emakumeak arraindegiko lanean trebatzen ari dira. ● OSKAR MONTERO

## Finkatzeko bidean

Ines Saenz de Pipaon, Iruñeko Udaleko Zerbitzu Sozialetako arduradunak esan duenez Udalak Gizarte Zerbitzuen bidez abiatutako Gizarte eta Lan Mundura Sartzeko Programak arrakasta izan du eta finkatzeko bidean da, gauzak uste bezala badoaz, bederen. «Aintzindaria izan zen programaren emaitzak oso onak izan ziren. Gehingoak lana lortu dute eta eurek egiten duten balorazioa oso ona izan da. Zentro-pilotoan lanean aritu ginen 60 familietan 20 haur baino gehiago txirotasunean bizi ziren orduan eta hori oso esanguratsua da. Horiek ere onura atera dutelako, norbanakoa ez egi, familia osoa laguntzen delako» dio.

Orain arte Udalak bakarrik sostengatzen du plana eta Gobernuaren partehartzea ere bultzatu nahi da. «Nafarroako Gobernuak partehartzen badu taldea egonkorra izanen litzateke eta behin beti

errotuko litzateke justifikazioa baduelako. NUPEk egindako lanean eta Parlamentuan eztabaidatzen ari den Baztertzaren Kontrako Planaren lehen barruan kokatu baita jadanik», azpimarratu du Saenz de Pipaonek. Joan den astean aurkeztu zen Iruñean dagoen gizarte bazterketaren datuak. NUPEk, Nafarroako Gobernuarekin eta Udalarekin elkarlanean egin. Ines Saenz de Pipaon, Iruñeko Udaleko Zerbitzu Sozialetako arduradunaren ustez, ikerketak lagundu du baztertuak dauden horiek zer gertatzen zaien antzemate. «Baztertuak dauden pertsonak badirela bagenekien. Egoera horretan zer gertatzen zaien jakiteko ballagarria izan da ikerketa. Gure egitasmoa datuok izan baino lehen hasi zen baina programak balio izan du Bazterketaren Aurkako Plan Forala egiteko». Horrela, planean aurreikusten denez, baztertua lanean eta

gizartean txertatzeko Iruñeko Udalak eratu duen taldea bezelakoak hiriburuan ez egi. Nafarroako oinarrituko zerbitzuen sareetan ere eratu nahi dira.

Saenz de Pipaonen arabera, ikerketak nabaritzen duenez, Iruñean bazterketa arazo nabariak lau auzotan dituzte: Errotxapea, Sanduzela, Etxabakoitz eta Alde Zaharra. Horietan txirotasuna kronifikatu egin den. «Arazoa larri da. 60ko hamarkadan Industrializazioarekin etortziko jendea da eta ez dute txertatze ona izan eta estuasun egoera garrantzitsuak pairatzen ari dira. Horrek esaten digu ere beste modu batean lan egin behar dela zerbitzu sozialetatik. Eta programa honek aukera hori ematen du ballabideak hobekiago aplikatu daitezkeelako eta jarraipena zehatzago delako, profesional batek egiten du eta berria da», akitu du.

koa den ikasten ari den hamahiru emakumez osatutako taldea.

Marisol Obanos da harraindegiko monitorea. Ikastaroa irailen hasi zen eta azaroaren 25ean akrituko da. «Lan arazoak baino gehiago, inguruan duten arazo soziala da euren eragina duena. Inguruneak ez diolako laguntzen lan egiten eta gustora egoten. Guztiak ikastera etorri dira baino askok inguru gartzakatsuan murgildurik daudenez zailagoa dute lan egitea. Guztiak ez dute lana lortuko baina bosten batek lortzen badute arrakastatsua izanen», dio Obanosek. Arraia nola moztu, sailkatu, garbitu eta aurkeztu ikasi bidenabar solasean dabilta guztiak. Hitz egitera gehiegi ez ausartu arren, azkenean euren egoera kontatzea erabaki dute. Carmen Guallar 43 urteko iruindarra langabezia zegoen eta hainbat arazo zituen. Udaletxeko programa honek eskaintzen zituen ikastaroetara hurbildu zen eta orain ikastaroa hau eta ansietatea eta sexualitatea lantzen dituen beste bi egiten ari da. Emakume heldu batek zaintzen dion zappi urte eta erdiko alaba du. Egutero ikus-

tuen duen arren, asteburuetan bakarrik izaten du berean. Egun banandua dago. «Lanbide bat ikasten ari naiz eta uste dut ogibidea aterako dudala hemendik. Bukatu eta zerbait aurkitzea espero dut. Nire adinarekin zaila den arren». Familian zientuen arazo larriak dira eta, joan zen Udaletxeak Errotxapean duen zerbitzura. «Familiako arazo larriak nituen eta gizarte-laguntzailearengana laguntza bila jo nuen. Ez diru eske baizik eta lan bat aurkitzeko laguntza bila. Lagundu ninduten ekonomikoki eta gomendatu zidaten honera etortzea nire arazoak gainditzeko. Orain arte egin dudanak eragin oso ona izan du niregan» dio baikor.

Ikastaroan dauden guztiak famili arazo larriak ez dituzten arren, gehingoa dira eta Carmen bezala, Ana Ezpeletak ere ez du bide xamurra. Berak 26 urte ditu eta Carmenen kasuan bezala, gizarte-laguntzaileak bidali zuen hara. Bost eta urte bateko bi haur ditu eta banandua dago. «Lan arazo handiak nituen eta ikastaroa interesgarria da eta bide honetatik lana aurkitzen badut primeran. Horretara nator eta», bukatu du azkar itaundutakoa.

→ Irene Arrizurieta

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Joxemiel Bidador Mutxikoen Eguna dela eta...

**Pasa den igandean, hilak 11, Mutxikoen Eguna ospatu zen Lapurdiko Arrangoitzen, ohi denez, jautzaleen ororen gozamenerako, eta Mendebaldeko euskaldun gehienen axolagabetasun gorrienean.**



**G**OIZEKO ZORTZIAK ZIREN EBRO-ko zubian gaindi, nagiak azkarki astinduz, Iruñeko bidean Lapurdira buruz abiatu ginenean. Logale izanagatik ere beste behin abiatu ginen, ohi bezala, jautzale amorratuen biltokia den Arrangoitzera. Pierre Betelu jaunak largaturiko ondarea bere hilobiaren pean zintzoki arra-loratzeko tenorea dugu larrazkeno, alabaina, festa giroan ere gazi-gaza mikatz zaiguke Mendebaldetik usaian bezala usuegi iragaiten den ez-axola futitzailea, areago aurtengoan, hauteskunde kanpainian direla eta. Iazkoan, Aragoi aldeko Gailurtarrek halen makil-dantza sugartsuekin unduski uzatu arrakasta ezin izan dute Audio aldeko Aretakoek erdietsi, eta banago, azken uneko gora-beherak baziren ere, beste edozein talde arabarrak, Indarra bat barne esaterako, nekez lortu zukeen Bostirikoek apaltasun haundiz bereganatu zuten arreta, areago, Kutxutxe eta Riklano ziganteak eraman ez zituztela; gora handiko usteontzi nasaiegi gurean, ausaz.

Hegoaldean jautziekin topo egin ahal izan genuen estrainekoz Sagasetaren lanei esker. Iturengo Migel Angel Sagaseta Aristegiren bi lan goiztiarrik honakoak izan ziren, bai 1975.eko *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian argitaratu emaniko *Estudio de los bailes de Valcarlos*, bai eta geroxeago ere, 1977. ean hain zuzen, liburu gisa bereditoreek agertu zioten *Danzas de Valcarlos*, tamalez, egun zeharo agortua dagoena eta bigarren edizioa sekularenan ere izanen ez duguna, iduri denez. Sagasetaren eskutik hainbat egile zaharragoen izenak ezagutu genituen. Guztietan, baina, argitara eman zuen bakarra Pierre Laharrage izan zen, *Dantza jauzi osoak beren segidekin*

izeneko bilduma Bordeleko F. Pechen moldetegian 1900. ean elkiarazi zuena. Laharrage musikalaria izateaz gainera apezagenuen; Atarrabiarekin batera Euskal Herriko udalerririkikien den Lekuinen -Donejakueko bidean dagoen Bon-Loc edo Bono-Loce hartan, espreski-1829. ean jatoa, behin apezputa, Zuberoko Sohütan eta Ithorrotzen, Nafarroako Mehainen, eta Angelun izan zen, azken honetan 1914. ean hil zela. XIX. mendeko erdialdetik jasoriko 21 soinuak bilduma dugu Laharragerena, 12 jauzi -Hegi, Ostalerts, Matelotta, Lapurtar-Motxak, Xoxuarenak, ...- eta 9 segida edo jauzi-buztan -Hatcha Pette, Zalhu Yuañes, ...- eskeintzen dizkiguna.

Alta, argitara eman ez izanagatik ere, jauziak jaso zituzten hainbat idazki izkiriatu egin ziren. Heletako Bautista Salaberrirena kasu baterako. Honek, 1888. ean Libournen soldaduskan zela, hainbat jauzien urratsak paperera eman zituen, baita bere garaian modakoa ziren hainbat bertso eta kanta ere. Larresoron irakasle zegoen Pierre-

Neree Dassance uztarizarrari, berriz, egile ezezagun batek bere *Recueil des sauts ou branles basques par P.L. Instituteur* eskuizkribua eskeini zion 1898.eko urtarrilaren 28an. Hartan 13 jauzi eta 11 segida jasotzen dira, baita Dantza-luzia, Dantza-korda eta zenbait Maskarada-martxa eta Maskarada-dantza. Lan honek omentzen zuenaren bilobak, Luis Dassance ezagunak ere alegia, *Les sauts basques et les vieilles danses labourdines* artikulua agertu zuen *Bulletin du Musée Basque*-n 1927. ean. Urte haue-tan, orobat, Florentin Vogel zenak jauzien gaineko hainbat lan agertu zituen, esate baterako «Notes sur la danse dans la

région de Saint-Palais», *Bulletin du Musée Basque*-n eta 1927. ean ere azaldu zena; guztiarekin, Vogekek bereziki hainbat jauzien edizioa aitzinaratu zituen: Mutxikuak, Hegi, Xarantina, ..., halaber, jauzi hauen pianoak egokitzapenak burutu zituen, zenbait liburutan eskeini zizkigunak, besteak beste, *Select-Album: 20 airs populaires et danses basques*, Donapaleun 1926. ean.

Jauzien musikari ospetsuenak Jean Othegi eta Faustinet Bentaberri lehengusuak izan ziren. Lehengoa Donazaharreko Landaburuan jaiotzen eta Baigorri zendu 1956. ean; honek jauzi bilduma eder bat bazuen, tapaki gorriak zituen kaier erabil batean, egun, damuz, galdurik dagoena, eta hortaz, Iholdiarrak, Musukurrak, Irisartarrak, edota Landibartarrak bezalakorik galdurik dira. Bigarren musikalaria Izpuran jaiotzen 1869.eko abuztuaren 15ean, eta bertan zendu 1936. ean, ez-tarriko minbiziak jota; hauxe izan zen Bartzelonan 1929. ean burutu Expo-rako Eskualdu-nak eta Sorginak antretaxatak prestatu zituen. Bi musikari hauek, arrabita eta klarinete joleak izan genituen, eta biak hartu ohi dira jauzien bizirau-penean giltzarri ezinbestekotzat.

Jauzien ulerpenerako berriekin eginiko lanak Gaizka Barandiaranen *Luzaideko dantzak* artikulua berezia -*Dantzariak* aldizkaria, 52. zenbakia, 1995.eko uztailaren-, eta baita Urbeltzen *Bailar el caos* lan bikainaren hainbat pasarte ditugu-Iruñea, Pamiela, 1996-, edozein modutan ere, orain arte karrikaturiko lanik sendo-ena Jean-Michel Guilcherren *La tradition de danse en Béarn et Pays Basque français* genuke, dudarik gabe, Parisen 1984. ean agertu zena, 1962-1976 urte bitartean lekuan jasoriko datuen interpretapenarekin.



## etorri ahalean

Patziku Perurena

## Kristo gure errege, adora...

**B**OTERE POLITIKOAREN irudia historian zehar beti erlijiozko jainkotasunari loturik erabili izan da. Israelarren artean botere politikoa eta erlijiosoa erabat loturik ageri dira. Erromako inperioan Zesar jainkotzat jo, eta enperadorekiko adorazioa sortu zen, eta abar.

Kristau aroaren hasieran, III-IV mendeetan, inperioaren botere kontzeptua ezin zuen ulertu herri xehe eskolagabeak. Dioklezianok (284-305), Enperadorea Erromako hiritar guzien buruzagia zela ongi jakin arren, haren irudia jainkoaren irudiari lotu behar izan zion, jendeak lurreko gizon haren botere ahalguztiduna onetsiko bazuen. Gero Konstantinok (307-337) kristautasuna onetsi zuenean, elizaren laguntza izandu zuen, eta honek, enperadorea jainkoaren graziaz aukeratutzat joko zuen.

Irudi berbera iragan zen bisigotoen artera, monarka arrianoak katolizismora bihurtu zirenean. Sevillako Isidoro Sainduak hala dio, baskoiak mendean hartu zituen Suintila erregeaz: (*grati divina ergni suscepti scepra*) errege makila jainkoaren graziaz beregandu zuela, alegia. Eta gauza berbera herrialde germanikotan: errege merovingio zaharrek jainkoa ahotan hartuz zuritzen zuten beren indar ahalguztiduna.

Hala ere, musulmandarren etorrerarekin, eta Ertaroan kristauten artean sortu zuen hausturarekin, galdu egin zen erregeren izaera jainkozkoa, eta VIII mendeko aldera, erregeren irudi ahalguztiduna, militar eta politikoa hutsa zen. Baina, monarkia merovingioa ahultzean, eta karolingioa indartzean, Erromako Eliza lorbardoan aurka burrukan sartu, eta karolingioen laguntzaz Aita Santuaren boterea sendotu egin zen, erregeari indar erlijiozko berria emate alde.

Eta geroztik irudi hau indartu zen, Ertaro guzian barrena, izkribu, moneta, eta inprimaki gu-

zietan «Rex Dei gratia edo Jainkoaren graziaz errege» esalege sakratua ohiko bihurtuz. Sineste honek, Paulo Sainduaren esanetatik hartu omen zuen indarra: «Izan zaitezte, Jainkoagatik, agintariaren men meneko: nahiz den errege, buruzagi edo gober-nari, hark aukeratu baititu gaizkileak zigortzeko eta ongileak laudatzeko».

Geroztik, erlijio/politikak erabat uztarturik ageri zaizkigu historian, eta zer esanik ez, hainbeste gerra eta errege istilu bizi izan dituen euskal lur sinetsbera honetan. Trentoko Kontzilio ondotik piztu ziren erlijio gerrak lekuko.

Eta, egundaino lelo berberak iritsi zaizkigu: «Por Dios, por la patria y el rey lucharemos todos juntos...», «*supieran los curas y frailes, las hostias que iban a llevar, subirían al coro cantando: libertad! libertad! libertad!*», «Jainkoa eta lege zaarrak»... Beste milaren artean, ezagunenak aipatze arren.

Karlistadako bertsoa ere horretaz da damu: «Esku batean San Cristo/ eta bestian berriz, pistola/ erlijioa ez da hola... Nola ba, bestela?». Triangelu hautsi ezin bat osatu baitute betidanik erlijiosoak, politikeroak eta iraultzaileak, eta badirudi ez dela sortuko triangelu hori hautsiko duen jainkorik sekulan. Berdin dio eliza, gobernu, edo kale gorria izan, triangelu horretanxe babesten dute elkar hipokritak eta inozenteak.

Orain, erlijioa galdu dela uste den honetan, ikusten da hori aisena: politika edo iraultza kasik erlijio huts bihurtu denean. Nik benpe, buruan jainko bana eta haren mila adoratzaile dituen jendajea besterik ez dut sumatzen inorekin hizketan hasi ordu.

Bai, zail da Jainkoa hiltzen. Zerorrek ixilka eta xuhur ez baduzu hiltzen, beste hamalau mila jaiotzen baitira inguruan, bat hil orduko. Egungo jende buloso eta antsikabea lekuko, poltsean jainko bana daramana.

**OHARRA:** Patziku Perurenaren testua-errepikatu egin dugu edizio honetan, aurrekoan, arazo teknikoak zirela eta, zenbait pasarte galdu zirelako.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Zalduak


**M**UNDU MAILAKO ANTZERKIAREN PARTE IZATETIK URRUN, TXONTXONGILOARENAK asetzen gaitu. Faxe aferak zipriztundu zuena dugu txontxongilo taldearen zuzendaria. Bere menekoek parregurea eragin, kezka bihurtzeraino eragin ere, Zolinakoa eredu garria erakutsi. Bizkitartean, Erriberako zalduak arriskuan daude. Landazuriak esana, jende zuria gurean.

# Joseba Igarabide

Xaloea telebistako zuzendaria

## «Oraindik aunitz antzinate behar dugu»

Heldu den ostiralean, Elizondoko Ferietan, Xaloea Telebistak urte bat beteko du airean. Baztan, Malerreka, Bortziriak, Zugarramurdi eta Urdazubiko eskualderako proiektu bakarra zena bitan banatu bazen ere: Xaloea telebista eta Ttipi-ttapa telebista, kontent dira lortutakoarekin. Datorren urterako erronkak arazo teknikoak konpondu eta egungo programazioa sendotzea ditu Xaloeak.



MIKEL SAIZ

### soslaia

Baztango Udalaren babespean Elizondoko eskoletan du egoitza Xaloea Telebistak. Laister Xorroxin Irratiak ere han kokatuko du bere lantokia. Legate eta Askin mendietan dituzten errepikagailuekin Baztan, Malerreka, Bortziriak, Zugarramurdi eta Urdazubiko parajeetara iristen saiatzen badira ere, oraindik badituzte itzalak. Toki menditsua izanik oso zaila baita bazter guztietara seinalea ongi iristea.

Xorroxin Irratian hemezortzi urtez aritu ondoren, telebistaren erronkak erakarrita hasi zen Joseba Igarabide Xaloea proiektuan. Damutzen ez bada ere, eguneko hogeita lau orduko pentsamenduak telebistak kentzen omen dizkio. «Ez dut denbora materialik beste deustan pentsatzeko», dio etsita. Dena dela, eroso sentitzen da lan berrian.

Igarabide Erratzun bizi da eta bi haurren aita da. Telebistaren proiektuan burubelari murgildu bada ere, Legasako Laminaciones enpresan egiten du behar. Irratitik telebista egindako jauzia ez dela hain handia dio. Haren irudiko, telebista askotan «irradi animatu bat» da. Multimedia biltzen dituen komunikatzeko erak harrapaturik dute egun eta hori jorratzen jarraitzeko asmoa du.

**J**OSEBA IGARABIDEK ILUSIOZ hitz egiten du abiatu duten herri telebistaz. Irratian hasia berria zuen komunikabide batean sartu bada ere, oraindik ikasteko asko duela nabaritu du lanean dabilenetik.

■ **Aurki urte bat egingen duzue pantailan. Nolako balorazioa egiten duzue?**

Arras positiboa da. Batetik, dexente kostatzen ari da, esfortzu handia suposatzen duelako komunikabide bat aintzineratzea. Baina, bertalde, izan dugun arrakasta eta harrera onak izan dira eta aurreikuspenak bete ditu. Oraindik aunitz antzinate behar dugula ikusten dugu bai programazioaren luzetasunetan bai kalitatean. Lehendabiziko urtea izan da ikusteko gai ginen aintzinate ateratzeko edo ez. Abiapuntua zaila zen, aunitz jendek ez zuen sinisten ere horrelako medio baten beharra eskualdean, ez ote den gehiegikeri bat telebista izatea. Kontzeptuak daude oraindik telebista handietan, erraldioetan, diru aunitz gastatzen duten horietan, eta horrenbertez jendea oso eszeptiko bihurtzen du telebistarekiko, baina guk beharrezkoa ikusten genuen euskararen normalkuntzarako.

■ **Astean bitan emititzetik egunero emititzera pasa zarete. Nolako da egungo programazioa?**

Egunero emititzen urtarrilatik hasi ginen. Hiru informatibo egiten ditugu egunero 30-40 minutu tartekoak, eta hortatik aparte bi orduko magazine bat egiten dugu ostiraletan. Pausoak mantso mantso eman ditugu. Hasiera batean hiru hilabeteko ikasketak egin genituen Iruñeko produktora batekin. Abiapuntua nahiko zaila izan zen hiru pertsona ginelako. Udan bostera pasatu ginen eta orain bagaude bostak gehi herri bakoitzean ditugun kolaboratzaileak.

■ **Zonaldeak 20.000 biztanle inguru ditu eta une honetan bi telebista ari zarete emititzen. Nola dago zuen arteko harremana?**

Gure ikuspuntua hasieratik bat izatea zen, erdibana eginga baina bat. Ez zen posible izan eta orian gauza horrela dago. Pentsatzen dugu bi gehiegizkoa dela baina horretan eskubide osoa onartzen diogu denei telebista bat antolat-

zeko. Bat izatea gustatuko litzai-guke, baina bakoitzak bereari begiratzen dio eta zaildu egiten ditu harremanak. Dena den, apostua beti baten alde egin dugu eta egingo genuke. Oarso telebistak eta Ttipi-ttapa bultzatu duten Federazioarekin euskaraz ari diren herri telebisten elkarlana bultzatzea dute helburu. Bertan sartzeko gonbidapena jaso dugu baina eszeptiko xama-

rra naiz. Gu hain ondoan ez gara konpondu eta. Badaude zailtasunak, sistema ezberdinak erabiltzen ditugu eta zailtasunak sortzen dira. Dena dela, ideia bezala ona da.

■ **Egun, nola sostengatzen da telebista?**

Publizitatez eta izan dugun dirulaguntzaz. Europako Batzordetik hizkuntz gutxituen aldeko proiektu bat egiteagatik jaso genuen dirulaguntza 1996an, eta 1997an behar zuen martxan. Horrek baldintzatu gintuen arlo guztietan. Ondotik, bide beretik beste dirulaguntza bat jasoko dugu baina hori hortan akitzen da. Lehendabizikoan bost milioi pezeta izan zen (500.000 libera) eta orain hiru milioietarat hurbiltzen da. Nafarroako Gobernuak ere eman digu laguntza. Horrek suposatzen du esfortzu handia egin behar izan dugula aurreneko urte honetan. Hasieran langileak doan aritu ziren eta orain kobratzen dute. Horrela posible da proiektua aintzinerat ateratzea, badelakoz gainera borondatezko berriemalle eta kolaboratzaile aunitz herrietan. Publizitatean prezio merkeak jarri ditugu, hemen konpetentzia handia da eta eskualdea txikia da.

■ **Xaloea Telebistak zein funtzio du zonaldean?**

Erran daiteke gizarte zerbitzu publiko osagarri bat gehiago dela. Dauden beste erakundeei ateak ireki eta hitza eman da

«Gure espezializazioa oso garbia da, eskualdea. Ordu eta ezagupen gehiago eskaintzen ahal dugu eta alde horretatik oso zaila dute beste komunikabide erraldoiek herri aldezkarri, irrati edo telebistei konpetentzia egitea».

gurea. Alde horretatik oso zabalak gara, hemen denek badute toki. Herriarentzat tresna bat izan behar du.

■ **Gero eta herri telebista gehiago daude bai Nafarroan eta bai Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetan. Nola ikusten duzu horien etorkizuna?**

Gure espezializazioa oso garbia da, eskualdea. Ordu eta ezagupen gehiago eskaintzen ahal dugu eta alde horretatik oso zaila dute beste komunikabide erraldoiek herri aldezkarri, irrati edo telebistei konpetentzia egin. Dena den, garbi izan behar dute zein diren beren mugak. Proiektu

erraldioetan sartu gabe, ekonomiaren aldetik dauden mugak imaginaziorik eta informazioak gainditu behar ditu.

■ **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Ez dakit. Itxaropena badugu eta bi proiektuak tokia izatea espero dut. Bestalde, ditugun arazo teknikoak moldatu nahi ditugu. Seinalea ongi iristen da baina badira oraindik itzalak. Hurrengo pausua lurramendin beste errepikagailu bat jartzea da. Hemen oso zaila da itzel bat ere ez izatea eta guk %50 hartua dugu.

→ Irene Arrizurieta

## BEKARIO!



### Nafar Kronika

Gontzal Agote

## Fanatikoek eragindako langabezia

**A**LDAKETA SAKONEN GARAIA IRITSI EI da gurerak, garai berriak omen datoz eta hauekin bat mugimendu ugari ari gara ikusten. Dena den, eta itxura guztien arabera batzuk ez dira batere alaitu Eukal Herriak arnasten duen giro osasuntsuarekin, deseroso zate armen isiltasuna; beldur diote, demokraten artean demokratenak izan arren, herritarren hitzari. Ez dira kontent euskal herritarrok urratzen hasi garen bidearekin, baina ez da ideologia kontua, ez. Sinpleagoa da: urdaiarekin ari dira hitzegiten eta ulertzekoa da, langabezi gordina da ikusten duten etorkizuna. Urte anitz eman dituzte euskal «arazo», «gatazka» edo dena delakoaren kontura bizitzen eta ordua iritsi denean, berandu, ohartu dira ez dakitela beste ezer egiten. Hortik datorkie izua: langabezia dute aurrez aurre.

Zenbat tertulianok galdutako lezake bere lanpostu preziatua, ordubetez irainak jartkitzeagatik hilero miloi erdi patrikara? Etorkizun hoberik al dute milaka polizi eta goardia zibilek? Eta zer egiten dute orain betaurrekodun eta elkorteinglesek jantzitako bizkarzainek, *especialistas en ti*, edota mikrofonoak ahazten zituzten espia prestuek? Zer kontatuko digute orain unibertitateko irakasle demokrata eta mehatxatuta (edo mehatxatuta eta demokrata, inoiz ez dut argi izan zein zen orden zuzena) euren liburu garestietan? Zenbat forok galduko du dirulaguntza? Eta euskal arazoa hain ongi ezagutzen duten kazetariak, azkenean hainbeste maite duten literatura fantastikoa *El jueves*-i saltzera kondenatuta izanen al dira?

Anai-arrebak, hauxe da eta ez beste ezer, egun gure herriak bizi duen tragediarik handiena: fanatismoak eragindako langabezia. Benetan gupidarik gabeko jendilajea.

### KONTZERTUAK

- Burlata: Joaquin Asiain tenorearen kaltetaldia izanen da bihara, 20:00etan, Regina Pacis iakstetxean.
- Burgi: Aizaga Ganbara abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan etzi, 12:15etan.
- Areso: Schola Cantorum emanaldia izanen da etzi, elizana, 11:45etan.

### ZINEMA

- Añorbe: Bihar *Amistad* filma eskainiko da zinematan, 20:00etan. Pelikula bera pantailaratuko da ordu eta toki berean heldu den astelehenean.

### ANTZERKIA

- Aurizberri: Trokolo antzerki taldeak *Mis Mitos* ikuskizuna eskainiko du bihar, frontoian, 21:00etan.
- Orkoien: Pasadas las 4 taldeak *Baby boom en el paraiso* lana eskainiko du gaur, 18:00etan, Eskola Publikoan.
- Tafalla: Trokolo taldeak *Tantaz tanta* lana taularatuko du datorren asteazkenean, 18:00etan, Kultur Etxean.

### ERAKUSKETAK

- Burlata: Josune Irribarren Esainen lanak ikusteko aukera dago urriaren 27ra arte Kultur Etxean.

### BESTELAKOAK

- Elizondo: Txalaparta ikastaroa antolatuko du Baztango Gazte Asanbladak musutruk. Ikastaroa urriaren 19an hasiko da 21:30etan Baztandarren

Biltzarraren egoitzan. Irakaslea Patxi Etxeberria arizkundarra izanen da.

- Iruñea: Urtxintxak aisialdirako zuzendari eta laguntzaileak hezitzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa hilaren 17an hasiko da. Parte hartu nahi duenak telefono hauetara deitu behar du: 948-21-14-78 edo 910-25-74-71.

- Iruñea: Alberto Barandiaran *Egunkari*ko kazetaria *Ez zaigu ahaztu* liburuaz mintzatuko da hel-

du den ostegunean, 20:00etan, Zaldiko Maldikon.

- Iruñea: Iñaki Desormaisek *El yelmo del mambrino* olerki sorta aurkeztuko du datorren asteartean, 20:00etan Iruñeko Kutxako hitzaldi aretoan (Armada Etorbidea 2).

- Iruñea: Nafarroako Kirol Elkarteak Belagoara gazteentzako II Ibilaldia antolatu du etzi. Joan nahi duenak dei dezala 948-22-43-24 telefonora.

- Iruñea: Udalak artista gazteentzako XIV «Iruñea artista gazteak 1998» deialdia zabaldu du. Iruñean jaio edo bizi diren 18 eta 26 urte bitarteko artistek parte hartu ahal izanen dute. Partehartzaile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izanen ditu pinturan, eskulturan ala argazkigintzan. Lanak igortzeko epea urriaren 24ean bukatzen da. Informazio gehiago nahi duenak Udalera jo behar du edo 948-42-01-20 telefonora deitu.

## gure aukerak

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini